



3 AISIA

Udan milaka abentura Ttakunen eskutik

25 urte dira Ttakun kultur elkarteak Udako Txokoak antolatzen dituenetik eta hainbat berrikuntza daude aurtengoan. Egitaraua prestatzeko haur eta gurasoen laguntza izan dute arduradunek. Honetaz gain, jangela zerbitzua ere eskainiko du. Ekainaren 16ra arte dago izena ematea irekia. Bestalde, gazteek Kanpaldiak ere izango dituzte. Egitasmo hauetako bilerak aste honetan zehar eta hurrengoan egingo dira Manuel Lekuona kultur etxean.



Udal ordezkariak eta herriko elkarte eta eragileak San Pedro Jaietako aurkezpen ekitaldian.

6 KIROLA

Erraketa festa izan zen asteburuan

Lehengo asteburuan erraketak izan ziren nagusi Lasarte-Orian. Squash, padel eta tenis txapelketetako finalak jokatu ziren. Iker Cañedo izan zen garailea squash-ean eta padelean, berriz, Gorka Lara eta Iñigo Zabala eta Luke Irazusta eta Katerin Arruabarrena bikoteek eraman zuten garaiak. Tenisari dagokionez, eskolarteko txapelketan, Xabier Navarro herritarra eta Landaberriko mutilen taldea txapeldunorde izan ziren.



PADEL L-O

San Pedro Jaietako egitaraua eta herria girotzeko egingo diren aurreko ekintzak aurkeztu zituzte Udalak eta herriko elkarteek asteazkenean. Jaietarako gune berriak erabiliko dira eta hainbat ekintza berreskuratuko dira. Aurrekontua 172.973,27 eurokoa izan da.

Jesus Zaballos alkatea, Txus Alonso Jaietako batzordeburua eta Rosa Illaramendi eta Xabier Goitia teknikariak San Pedro Jaietako nondik norakoak aurkeztu zituzten Tximistarreta parkean, aurreko ekintzak eta egitaraua antolatzen lagundu duten elkarte eta eragileekin batera.

Txus Alonso Jaietako arduradunak azaldu zuen ekainaren 28an hasi eta uztailaren 2an amaitzen den egitaraua. "Berez, aurtengo San Pedroak uztailaren 1ean amaitu behar ziren jaiak baina larunbata ere jaietako eguna izatea erabaki genuen, ostalariek ere

haien eguna izan dezaten", azaldu zuen.

Hamaika ekintza

Taldee dagokionez, uztailaren 1a ostirala Doctor Deseo eta larunbatean, uztailaren 2an, Ken Zazpi izango dira Okendo plazan.

Ostiralean gainera, parranda egiteko aukera izango da Zozongoren Psycho-Clown eta Kolpez Blai emanaldiei esker.

Herriko taldeentzat ere lekua izango da, hala nola, Ibai Berriak taldearekin dantzatu ahalko da Isla Plazan edo Oaintxe in deu txaranga izango da kaleak alaitzen.

Honetaz gain, hainbat ekintza berreskuratuko dira hala nola, haurrentzako bigantxak edo soka-muturra. Eta berriak ere izango dira, Atsobakarreko parkean, zaldi lasterketak eta gizon eta zaldiaren arteko erronka egongo da. Honetan Raul Gomez Margallo herriko korrikalariak parte hartuko du.

Era berean, ekintzak aurrera eramateko gune berriak izango direla aipatu zuen Jaietako batzordeburuak. "Sokamuturra egiteko Elizatze plaza erabiliko dugu eta Jaizkibel plazan aurtengo dantzatzeko aukera izango da hainbat talderen eskutik".

Hori guztiaz gain, adin guztietan zuzendutako ekintzak izango direla azpimarratu zuen, "Haurrentzako parkeak Andatza plazan, kale ekintzak herrian zehar...".

Egitaraua osatzen lagundu duten elkarteek haien ekintzen berri eman eta Rosa Illaramendi Jaietako teknikariak hainbat

zehaztapen egin zituen, esate baterako, haurren danborradan "ikustekoak diren" berrikuntzak izango direla.

Omendua

San Pedro Jaietako omendua ere jakitera eman zuen Txus Alonsok, "aurten Landaberri ikastolak du ohore hori bere 50. urteurrena dela eta".

Ikastolako haur eta helduak izango dira beraz, txupinetan protagonistak.

Aurrekariak

Baina Jaiak hasi baino lehen, motorrak berotzeko hainbat ekintza izango dira aste hauetan, Scooter Rallya, Alboka Abesbatza, Erketz EDT eta Zero Sette akordeoi orkestraren emanaldiak, San Juan Sua edo Biyak Bat elkarteko joko eta abesbatzaren emanaldia.

Atera blusa armairutik edo kamisetak prestatu, San Pedro Jaiak badatoz eta!!!

EPA LASARTE HHI

2016-2017 ikasturtea

MATRIKULA EPEA ZABALIK
Ekainaren 15etik 30era

- Lehen eta bigarren hezkuntza arautuak (DBH/ESO)
- Erdi eta Goi zikloko Sarbide Proben prestaketa
- Gaztelania atzerritarrentzat



Tel. 943 37 64 43 / 943 36 66 08 • Beko kalea bidea 1, 3 • Lasarte-Oria • www.epalasarte.es

Ordutegia:
11:00-13:00
(ambulategi gainean)



Igeltseritza orokorra

Josue
Igeltseritza S.L.

606 37 21 05

Atallu pol. atallu, 28
USURBIL

josueigeltseritza@euskalnet.net

Fatxaden estaldurak

Estalkien berriztatzeak

Barruko berrikuntzak

Gremioen koordinaketa

Neure kabuz



Ane Labaka

Zutik

Badira hamar bat egun inoiz baino aire garbiagoa arnasten dudala, Laboaren "ustelak lurpera, bizitza da handiena..." dioen kanta burutik eta mingainetik kendu ezinik nabilela. Ez dira askoz gehiago pasa mendi buelta bat egitera joan eta erraustegia eraiki nahi duten eremua gertutik bistaratu nuenetik. Oraindik ere erraustegiak ekar lezakeen kaltearen inguruan zalantzak dituen hura ni pausatu nintzen mendi magal berean pausaraziko nuke ariketa simple bat proposatuz; paisaia arnastu, sentitu, usaindu, behatu... dezala lehenik, ondoren une batez begiak itxi eta paisaia koloretsu hartan bertan munstro gris erraldoi bat irudikatzen.

Negargarria litzateke ariketaren emaitza, negargarria delako bizi dugun egoera. Baina umoretik erantzuten asmatu dugulakoan nago, irribarrez elkartu ditugu eskuak giza-kate luzeak eratzeko, turistaz jantzi gara kulturaren hiriburuan selfie-makilez haratagoko mundu berri bat aldarrikatzeko, lozakuetan amestu eta azkenaldiko asanblada jendetsuenetan hartu dugu parte. Trukean, balizko erraustegiaren kolore bereko munstroak bidali dizkigute bisitan, kolpatu gaituzte, lagunak atxilotu dizkigute eta belauarekin zapaldu artean lurraren kontra nola itozten zituzten ikusi behar izan dugu amorrutz.


Horregatik, batzuk medikuntzako tituluak tonbolan lortzen direla dioten honetan, inongo titulugabeko honek zilegitasun osoa sentitzen du beregan oihal koloretsu baten inguruan eseri eta erraustegiak sinbolizatzen duen horren guztiaren aurka egiten segi behar dugula adierazteko. Makurrarazi nahi gaituzten aldiro, #GipuzkoaZutik egon dadin.

Zorion agurrak



Naiara

Zorionak printzesa!!!!!! Zortzi muxu handi aitatzko eta amatxoren partetik.



Amets

Zorionak maittia!! Muxu potolo bat familiaren partetik!!



Nora

Zorionak printzesa! lada 3 urte!! Muxu pottolo familiaren partetik. Pila maite zaitugu.



Iker

Urte bat gehiago badaukazu eta hala ere ez zara ezta pittin bat aldatu. Hori zoragarria da zu zaren bezalako "perfektoa" zarelako.



Markel

Zorionak txapeldun!!! Zorionak bikote ederki ospatu behar ditugu bizilagunak zara segi horrela... 10 mila muxu aita, ama, Maddi eta familia guztiaren partetik!!!



Begoña eta Garazi

Zorionak! 3 muxu potolo famili osoaren partetik.



Ekain

Zorionak! 3 muxu potolo famili osoaren partetik.



Begoña

51 urte egiten dituzu, Artizarreko kideen partetik urte askotarako!

Azoka txikia

Higiezinen Eskaintza

- Apartamentoa alokatzen da Cala de Finestrat-en (Alacant). Bi gela, egongela, sukaldea, bi komun eta terrazarekin. Horretaz gain, igerilekua eta padel pistarako sarrera. Hondartza 200 metroa gertatzen da. Informazio gehiagorako, 667 731 456.
- Mobil home bat alokatzen dugu Landetan uztailearen bigarren hamabostaldian (17-31) sei pertsonentzat egokia. Igerileku klimatizatua (sauna eta jacuzziarekin) eta kanpoan igerilekuak tobogan eta uretako jolasekin. Aste bakarra edo hamabostaldia alokatzen da. 943 369 231.

Lan eskaintza

- Zerbitzari baten bila gabiltza. Ibilgailua beharrezkoa da. Kurrikulumak helbide honetara bidali: enpleguaukera@gmail.com.

Lan-eskaria

- Eraikuntza lanetan laguntzaile edo orgatila

eramaten lan egingo nuke, baita pertsona adinduak zaintzen ere. 674 477 255.

- Pertsona adinduak zaintzeko externa edo orduka lan egiteko prest. Esperientzia eta erreferentzian 617 761 423
- Adineko pertsonak, zein umeak zaindu, ospitalean zaintza gauak egin edo etxeko lanak egiteko prest nago. Asteburu eta jaiegunetan ere lan egingo nuke. Piedad, 632 754 243.
- Gizon edadetuak zaindu, kalera lagundu, ospitalean zaintza egin edo baserri lanak egiteko mutila eskaintzen da. 618 342 007.
- Atariak, bulegoak edota etxeak garbitzen egin nahi nuke lan. Nagusiak ere zainduko nituzke. Elena 673 25 65 66
- Pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko astean zehar, jai egun eta asteburuetan... edozertarako prest. Orduka lan egiteko prest. 943 404 015/606 661 048

Jaiotzak

Jaiotzak

- Iria Martin Merideño, ekainaren 3a.
- Alex Felipe Blanco, maiatzaren 24an.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 9:00-22:00

| | |
|--------------------------------|------------|
| Ostirala, 10 | |
| Gil, Kale Nagusia 24 | 943 361529 |
| Larunbata, 11 | |
| Gandarias-Urbe, I. de Loyola 9 | 943 019521 |
| Igandea, 12 | |
| Gandarias-Urbe, I. de Loyola 9 | 943 019521 |
| Astelehena, 13 | |
| Gil, Kale Nagusia 24 | 943 361529 |
| Asteartea, 14 | |
| Urbistondo, San Frantzisko 1 | 943 366567 |
| Asteazkena, 15 | |
| Gandarias-Urbe, I. de Loyola 9 | 943 019521 |
| Osteguna, 16 | |
| Orue, Jaizkibel plaza 2 | 943 362652 |

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero
Echeveste Elozegi, Elkano 9
Hernani, Tel.: 943 552087

Larrialdi telefonoak

| | |
|----------------|------------|
| Osasun Zentroa | 943 007960 |
| DYA | 943 464622 |
| Gurutze Gorria | 943 363953 |
| Udaltzainak | 943 362442 |
| Ertzaintza | 943 288888 |
| SOS Deiak | 112 |

Udalaren telefonoak

| | |
|---------------------|------------|
| Erregistroa | 943 371629 |
| Euskarako Zerbitzua | 943 376184 |
| Kiroldegia | 943 376182 |
| Kulturetxea | 943 376181 |
| Gizarte Zerbitzuak | 943 376179 |
| KIUB | 943 361605 |
| Udal eskalategia | 943 361621 |
| Munterri AEK | 943 372863 |

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Laguntzailea



Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Maidor Azurmendi, Nerea Eizagire, Iñigo Gonzalez.

txintxarri@txintxarri.eus

Publizitatea: Arantxi Zulaika
publizitatea@ttakun.eus

Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Maider Segurola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

AISIA



Uda abenturaz blai

Jangela zerbitzua jarri da Udako Txokoetan

Ttakun Kultur Elkarreak udarako eskaintza oparoa prestatu du beste behin, Udalaren laguntzaz. 3 eta 18 urte bitarteko haur eta gazteentzako programak antolatu dituzte. Haur, gazte, hezitzaile eta familia, denera 800 bat lasarteoriatarrek hartuko dute parte udalekuetan.

TXINTXARRI

Astehenero aurkezpen prentsaurrekoan Ttakuneko Aisia ardura-dun Pili Bermejok esan zuen bezala, "eguraldi ona" besterik ez da falta aurtengo udalekuetarako. Gainontzeko guztia, euren esku dagoena bai behintzat, egin dute Ttakuneko kideek, Udalaren laguntzaz.

Egin dute, adibidez, aurrelana, haur zein gazte esparruan. Haur eta lehen hezkuntzari dagokienean, formazioa, talde lana, elkar trukea eta antzeko baloreak hartu dituzte oinarritzat beste behin. Horri jarraiki, udalekuen protagonista diren haurren (eta gurasoen) iritzia ere hartu da kontuan. "Guraso eta haurren konplizitatea lortu nahi izan dugu", nabarmendu zuen Bermejok. Prozesu horri hezitzaileen aurreneko formazio saioan eman zioten hasiera; lekukoa haur eta gurasoei pasa zitzaion, eta eurekin

egindako bileretatik ateratako ideiak bigarren saioan landu ziren.

Bigarren hezkuntzako gazteen oporraldiak diseinatzerakoan ere eman zaie garrantzia haien gogo eta nahiei, Gazteak saileko arduradun Iñaki Aristondoren esanetan. "Lanketa bat egin da Kuadrillategi egitasmo-ko azken saioetan, euren proposamenak entzun eta aztertuz", zehaztu zuen. "Parte hartze aktiboaren erakusle nagusia Faktoriako kanpaldiak dira; Batxilergoko ikasleekin batera, ikasturte osoan zehar Gironan burutuko dugun kanpaldia antolatu dugu, plangintza egiteaz gain landu nahi diren helburuak elkarlanean finkatuz".

Bilerak

Txokoetako gurasoeekin aste hauetan egingo dira bilera informatiboak. Atzo Albeniz, Done-miliaga eta Larraulera doazenen bilerak egin ziren.

Gaur, beste hiru bilera prestatu dituzte: HH 3-4koak 17:00etan eta 17:40ean elkartu-

ko dira. Erderaz eta euskaraz izango dira bilera horiek, hurrenez hurren. 18:20an HH5-LH2-koena egingo dute, euskaraz, eta 19:00etan gazteleeraz. Bukatzeko, abuztuko programazioa 19:40an azalduko dute.

Jangela zerbitzua Txokoetan

Aurtengo udako eskaintzak badauka berrikuntza nagusi bat: txokoetan ariko diren haurrentzako jangela zerbitzua; udalekuetako ordutegia 15:15era arte luzatu ahaliko dute interesa dutenek.

Irekita dago jada izen-emate epea, ekainaren 16ra arte. Ttakuneko bazkide direnek 90 euro ordaindu beharko dituzte; ez direnek, berriz, 95. Denera 60 plaza daude.

25 urtetan zehar

Tomas Arrizabalaga Ttakuneko lehendakariak gogora ekarri zuenez, "urtero-urtero" antolatu ditu Ttakuneko udalekuak, "Udalaren laguntzarekin, hitzarmenetan jaso bezala". Denera, 25 aldiz, urte kopuru hori bera betetzen baitu aurtengo Ttakuneko Udalak emandako laguntza ere eskertu zuen Arrizabalagak.

Jon Antxordoki Euskara zinegotziak azpimarratu zuen Udalak asko eskertzen duela Ttakuneko prestatutako programa: "Oso interesgarria da herriko gaztetxoentzat".

'Kultura auzoetara' programa, Orian

Udalaren 'Kultura auzoetara' programa Oriara iritsi zen astearte arratsaldean. Bertako auzotarrek Lur Usabiaga ipuin kontalariaren istorioez eta Udal Musika Eskolako zenbait ikasleren kontzertuz gozatu zuten.

Hiru eta zazpi urte bitarteko hamar bat umek entzun zituzten ipuinak, La Esperanza auzo-elkartean. Ondoren, Karmengo Amaren kaperara bertaratu ziren batzuk, musika emanaldia entzuterako.



Udal Musika Eskolako kideek kontzertua eskaini zuten Karmengo Amaren kaperan.



HITZALDIA

Hassanna Aalia aktibistarekin solasean

Astearte arratsaldean Furia Beltza tabernara gerturatu ziren herritarrek Mendebaldeko Sahararen egoeraren berri jakin zuten, Hassanna Aalia aktibista sahararraren eskutik. Hainbat gai jorratzeaz gain, zendu berri den SEADren presidente eta Frente Polisarioaren idazkari nagusi Mohamed Abdelaziz izan zuen gogoan. Sahararen Lagunak antolatu zuen solasaldia. Audentzia Nazionalak geratuta dauka Aaliaren kontrako kanporatze agindua, haren auzia argitu arte; 2013an marokoar gobernuak biziarteko kartzela-zigorra kondenatu zuen, 2010ean Gdeim Izik kanpalekuko partaide izategatik.

GAZTE KLUBA

Gorlizera irteera

Gazte Klubeko LH2 eta LH5 maila arteko kideek ekainaren 23an Gorlizan egun pasa ederra igarotzeko aukera izango dute. Bertan esperientzia berriak bizi ahaliko dituzte, body-board egin eta hondartza ondoan dagoen abentura parkean ibiltzeko aukera izango baitute.

Irteera goizeko 8:30ean izango da Zumaburuko autobus geltokitik eta 17:30ean izango dira bueltan. 38 euro balio ditu irteerak; Ttakuneko bazkideek, aldiz, 35 euro ordainduko dute.

Izena ematea ekainaren 20an amaituko da. Antolatzaileek jakitera eman dutenez, plazak mugatuak dira eta erreserba izena ematea eta ordainketaren arabera egingo da.

GURASOS

GuraSOSen hitzaldia Biyak Baten

Duela hilabete aurkeztu zen jendartean GuraSOS taldea. Ordu geroztik, hainbat ekitaldi ari dira egiten. Astehenero hitzaldi bat eman zuten Biyak Bat adinekoen egoitzan. Gipuzkoako Aldundiak Zubietan eraiki gura duen errauste plantaren egitasmoa geratzeko eskatu zuen, "osasunarentzat kaltegarria ez denaren bermerik" ez daukalako.



Artista gazteen trebetasuna

Aurreko ostiralean, ireki zuten Brancussi akademiaren erakusketa eta bertan bildu ziren Jose Manuel Monge eta bere 50 ikasleak.

Erakusketan adin ezberdinetako ikasleen lanak ikusteko aukera dago. Horiertako batzuk gainera, Zipristin edo Gipuzkoa Plazako Udaberri lehiaketetan saritutako lanak dira.

Paisaiak, koadro ezagunen erreproduzioak... gai eta estilo ezberdinetako lanak ikusi daitezke. Gainera, teknika ezberdinak erabili dituzte hauek egiteko, hala nola, olio margoak, akrilikoak edo purpurina.

Erakusketaz gozatu nahi duten herritarrek arratsaldean, 18:00etatik 21:00etara egin dezakete bisita, gaur baitu azken eguna.





Gidabaimenaren teorikoa euskaraz atera eta izan sarria irabazteko aukera!



Andoain



Urnieta



Lasarte-Oria



Hernani



Usurbil



Astigarraga

Dakizuna erabili ez dakizuna ikasteko



**GIDABAIMENA MERKEAGO
LOR DEZAKEZU!!**

BURUNTZALDEAN NON:

| | | |
|--------------|----------------------|--------------|
| Andoain | | |
| BENGOETXEA | Juan Bautista Erro 9 | 943 59 44 06 |
| MENDI | Agustin de Leiza 11 | 943 30 06 04 |
| Astigarraga | | |
| OTAMENDI | Zubiondo 14 - LOIOLA | 943 45 11 07 |
| Hernani | | |
| HERNANI | Latsunbe 3 | 943 55 05 34 |
| | Urbieta 7 | 943 55 34 16 |
| LAGUNAK | Karobieta 1 | 943 33 14 19 |
| OTAMENDI | Izpizua 1 | 943 55 35 45 |
| Lasarte-Oria | | |
| LASARTE | Nagusia 5 | 943 37 06 92 |
| MUGICA | Ganbo 1 | 943 36 22 75 |
| Urnieta | | |
| SOLOZABAL | Idiazabal 24-1C | 943 33 41 69 |
| Usurbil | | |
| SOLOZABAL | Irazu 2 | 943 37 69 36 |

MERKEAGO
ATERATZEA
NAHI?

GIDABAIMENA EUSKARAZ!!

**AZKEN TEKNOLOGIAN
MURGILDUTA
IRUDIEKIN JOLASEAN**

EMAN
BIDEA

**HAUXE DUZU GIDABAIMENA
ATERATZEKO MODURIK
ERAKARGARRIENA!!!**



Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo
Udaletako Euskarako Batzordeak

Drain

**gidabaimena
EUSKARAZ**

**ETA HORI GUTXI
BALITZ...**

**ZOKETAN PARTE HARTZEKO AUKERA
10 SARI BURUNTZALDEAN:
TEORIKOAREN BALIOA (400 € GENIENEZ)**

BETE BEHARREKO BALDINTZAK:

- PARTE-HARTZAILE GUZTIAK BURUNTZALDEKO HERRIREN BATEAN ERROLDATUTA EGOTEA.
- GIDABAIMENA EUSKARAZ ATERATZEA
2016eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz gainditu dutenek hartuko dute parte zoketan.
(Esku-orri honetan agertzen den edozein autoeskolatan).
- PARTE HARTZEKO HURRENGO DATUAK BETE ETA AUTOESKOLAN BERTAN UZTEA.

IZEN-ABIZENAK

HELBIDEA

HERRIA

ZURE TELEFONOA

AUTOESKOLA

LABURRAK.-

LOKEko atletak ederki Euskadikoan

Absolutu mailako Euskadiko txapelketan aritu ziren LOKEko hainbat atleta, iragan asteburuan, Donostiako belodromoan. Maila ederra erakutsi zuten guztiek. Eneritz Busto juniorrak brontzea eskuratu zuen 100 metro hesietan, 14.50 segundoko denbora egin ez. Ane Galardik, berriz, zilarrezkoa jantzi zuen luzera jautzian, 5.38 metroko markarekin. Yeray Veroniz belozistak seigarren postua eskuratu zuen 100 metroetako finalean 11.15 segundotan geratuz erlojua, bere semifinal errondan bigarren denbora onena egin eta gero. Xalba Otxandorena ere seigarren izan zen jauzi hirukoitzean; Naroa Furundarena, berriz, zazpigarren. Oihana Igarizek, bestalde, laugarren postua eskuratu zuen pisu jaurtiketan (4 kilo), eta seigarrena diskokoan (kilo bat).

Mosso oroimenezkoa asteburuan erabakiko da

Kattagorri Insausti-Trumoi, El Punto-Also, Ilargi-TSST eta Izkiña-Txindoki. Lau horiek dira Mosso oroimenezkoaren final laurdenetako neurketak. Aurreneko biak ostiral arratsaldean jokatu dira, Michelingo areto-futbol kantxan, 19:45ean eta 20:45ean, hurrenez hurren. Beste biak, berriz, larunbat goizean, Udako Kiroldegian. 10:00etan hasiko da Ilargi eta TSSTren artekoa, eta 11:00etan Izkiña eta Txindokiren artekoa. Saillatzen diren lau taldeek finalerdiak jokatu dituzte larunbat arratsaldean, Udako Kiroldegian, 17:00etan eta 18:00etan. Finala, igandean, 11:00etan Kiroldegian.

Pili Bodegas bigarren Pasai Donibanen

Pasai Donibaneko triatloia jokatu zuen Pili Bodegas herritarrek iragan igandean. Podiumera igotzea erdietsi zuen, bigarren helmugaratu baitzen, 1:21:33ko denborekin. Proba Gwen Jorgensen estatubatuarrek poltsikoratu zuen; 1:14:37an geratu zuen kronometroa. Emakumezkoen podiuma Bodegasen taldekide Irati Mendiak osatu zuen. Yepa! triatloi klubean aritzen dira biak.



Bestalde, Zarauzko triatloian –Euskadiko txapelketa da– lau herritar ariko dira bihar: Andoni Illarramendi, Ramon Altuna, Asier Gorostegi eta Imanol Arteaga. 2,9 kilometro egin beharko dituzte igerian, 81 bizikletan eta 20 korrika.

Iñigo Ibarburu txapeldun GIF 2 sarian



Podiumeko maila gorenera aupatu zen Iñigo Ibarburu iragan larunbatean. Hernanin jokatu zen GIF 2 sarian hartu zuen parte, eta txapeldun izan, 100 m. tximeleta eta 50 m. libre probetan lortutako markei esker. Mikel Esnal, berriz, hirugarren izan zen saillapenean.

Aipatutako bi horiez gain, Buruntzaldea IKTKo beste bederatzia igerilari lehia-tu ziren sari horretan. Denen artean, hamaika marka pertsonal eta taldeko bi errekor berri zakuratu zituzten. Itsaso Tolosak, esaterako, nabarmen hobetu zuen 50 m. libreko marka, kronometroa 29.87 segundotan geratuz. Irati Arzalluz infantilak ere marka egin zuen distantzia horretan: 29.85. Espainiako gutxienekotik bost ehunetara geratu da.

KIROL AGENDA.-

PIRAGUISMOA

Ostirala 10/Igandea 12

Seu D'Urgell, asteburuan zehar

Maialen Chourraut piraguistak Munduko Kopako proba jokatu du. Gaur hasiko ditu finalerdiak saillatzeko kanporaketak.

IGERIKETA

Larunbata 11

Udako Kiroldegia, 10:00etan

Buruntzaldea IKTKo benjamin eta alebinek etxean egingo dute igerian. XXVII. Lasarte saria jokatu dute goizean zehar.

Igandea 12

Menorca, egun osoan zehar

Xabier Elizegi igerilariak 'Swim in Menorca' proba jokatu du. 25 kilometro luze dituen ibilbidea osatu beharko du herritarrek.

CROSSFIT

Larunbata 11

Oriako pilotalekua, 10:00etan

Indar-probak eta 'running'-a lotzen dituen 'Koroibos Race' jokatu da. Euskal Herriko lehenengoa da. Parte hartzaileek 3 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute, crossfit-eko hainbat proba burutuz.

FINALAK.-

Erraketak astintzen

Padel, squash eta tenis txapelketen finalak jokatu ziren asteburuan

Erraketa eskuan hartuta jokatzaren diren hiru kirol desberdinen final handiak ikusi ahal izan zituzten herritarrek pasa den asteburuan. Squasha, padela eta tenisa eduki zituzten aukeran. Aurreneko biak Kiroldegian jokatu ziren; tenisekoa, berriz, Michelingo pistetan. Alde bate-tik bestera ibili ziren pilota eta jokalariek, larunbat osoan zehar.



Argazkian, aurtengo squash txapelketako saridunak eta udal ordezkariak.

T. VALLES

TXINTXARRI

Erraketarekin pilota astintzean egiten den hotsa izan zen nagusi iragan asteburuan. Padel eta squash txapelketetako finalak jokatu ziren larunbatean kiroldegian. Michelingo tenis pista, berriz, Eskola Kirola egitasmoan aritu diren gaztetxoaren finalen bilgunea izan zen.

Iker Cañedok altxa du irabazle garaikurra 2016ko squash txapelketa sozilean, iazko txapeldun Iñaki Garcia mendean hartu ostean. 15-10, 15-10, 11-15 eta 15-8 gailendu zen. 3. postua Xabier Azaldegik bereganatu zuen, Kinin Calvo garaituta. Bosgarren jokoraino luzatu zen neurketa: 16-17, 15-10, 12-15, 15-11 eta 15-8. Kontsolazio fasean, berriz, Raul Mateo nagusitu zen; bost jokotan garaitu zuen Aitor Tejedor: 15-4, 15-10, 9-15, 12-15 eta 15-10.

Markagailuetako tanteoek erakusten dutenez, norgehiagokak emozioz beterikoak eta oso borrokatuak izan ziren, eta erakargarriak ikusleentzat. Udaleko Kirol zinegotzi Txus Alonsoren eskutik jaso zituzten sariak jokalariek.

Hamalau jokalariek aritu dira nor baino nor gehiago txapelketan. Aurtengoa 28. edizioa izan da.

Herriko II. padel txapelketa

Larunbat osoan zehar jokatu ziren padel txapelketako finalak, kiroldegiko pistetan. Gizonezkoetan Gorka Lara eta Iñigo Zabala izan dira txapeldunak –azken horrek ezin izan zuen jokatu; Angelek ordezkatu zuen–. Hiru setetan garaitu zituzten Jon Izeta eta Javi Cabo: 3-6, 6-2 eta 6-1. Emakumezkoetan, Luke Irazusta eta Katerin Arruabarrena izan dira txapeldunak, Kris Dos Santos eta Elena Bendito 7-5 eta 6-4 menderatu ostean.

Emakumezkoen txapeldu-nen faseko 3. postua eskuratu zuten Kontxik eta Beak, Noe eta Virginia 6-1, 4-6 eta 6-2 mendean hartuta. Gizonezkoen txapeldu-nen fasean, Joseba eta Ander Rekondo anaiak izan ziren hirugarren. Partida ez zen jokatu, Paxo eta Urko min hartuta baitzeuden.

Gizonezkoen kontsolazio faseko txapeldunak Ander Zapiain eta Beñat Pagoaga izan dira aurtengoa. Majo izerditu behar izan zuten Javi Alonso eta Aitor Erauskin mendean hartzeko: 3-6, 6-4 eta 6-3. Hirugarren postua, berriz, Miguel eta Danirentzat izan da, Patxi eta Albertori 3-6, 6-4 eta 6-4 irabazi ostean.

Finalak jokatu eta gero, sariak banatu ziren parte hartzaileen artean; DJ Lukyk musikaz girotu zuen ekitaldia.

Gauean, hainbat jokalariek antolatzaile Iruin sagardotegira joan ziren afaltzera, aurtengo txapelketa arrakastatsuari amaiera ezin hobea emanez.

Gaztetxoak tenisean

LOKE antolatuta, Gipuzkoako Eskola Kiroleko tenis txapelketako finalak ere pasa den larunbatean jokatu ziren, Michelingo pistetan. Alebin eta infantil mailetako neska-mutilak aritu ziren, banaka zein taldeka. Ostean, parte hartzaileen artean sariak banatu ziren.

Zenbait jokalariek lasarteoritarrek ere jaso zituzten garaiak. Banakakoan, LOKEko jokalariek Xabier Navarro txapeldunorde izan zen, infantiletan. Taldekakoan, Landaberri ikastetxearen ordezkari gisa aritu ziren Alain Mangas, Ugaitz Igariz eta Manex Bobillo alebinak; bigarrenak izan ziren.

Larunbateko norgehiagoketako zenbait datu eman dituzte antolatzaileek. Banakako mailan 110 gaztetxo aritu ziren; taldekakoan, 60.

Sari-banaketa pistetan bertan egin zuten. Horretan parte hartu zuten Txus Alonso Udaleko Kirol zinegotziak, Gipuzkoako Tenis Federazioko lehendakari Luis Azkuek eta LOKEko ordezkari Andrea Gonzalezek. Neska-mutilek pozarren jaso zituzten sariak.



Kris-Elena eta Luke-Katerin bikoteek jokatu zuten emakumezkoen padel finala.



Landaberri 2. izan zen alebin mutiletan.

Agenda

Larunbata 11 eta igandea 12, Atsobakar parkea



Rocioko giroa Lasarte-Oria

Semblante Andaluz elkartaren eskutik, XXII. Rocioko erromeria ospatuko da asteburuan. Musika eta dantza nagusi izango

dira Atsobakar parkean. Elkarteko taldeak eta gonbidatutako elkartetako kideak oholza gainean izango dira.

Larunbata 11
12:00etan, erromeria hasiera.
12:30etan, Semblante Andaluz elkarteko taldeen emanaldia.
14:30etan, herri bazkaria.
16:30etan, Semblante Andaluz eta Errenteriako Aljarafe elkarteko koru eta taldeen emanaldia.
19:00etan, dantzaldi herrikoa.
20:00etan, Amigos del Sur taldearen emanaldia.

Igandea 12
11:00etan, Semblante Rociero koruak giroturiko meza Rozeria Arantzazu parrokian.

12:00etan, Ama Birginaren irteera Atsobakar parkera.
13:15etan, agintari eta gonbidatuei ongi-etorria.
13:30etan, Durangoko Andaluziar kultura zentroko taldearen emanaldia.
14:30etan, herri bazkaria.
16:00etan, elkarte gonbidatuen emanaldia.
18:00etan, dantzaldi herrikoa.
19:30etan, Alegria de la Sierra taldearen emanaldia.
20:30etan, Ama Birginari agurra eta 'Salve Rociera'.
21:30etan, festa amaiera.

Lasarte-Oria

Antzerki eta Dantza Hamabostaldia

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Ostirala 10, 20:00etan

'Ilargiaren bila' lana helduen taldearen eskutik.

Astelehena 13, 18:00etan

Txomin ipurdi. LH1

Hiru Txerrikumeak. LH1

Zazpi antxumeak eta saltzaileak. LH2

Otsoa galdurik. LH2

Artzain gezurtia. Sasoeta LH1-2-3

Zazpi antxumeak. Sasoeta LH1-2-3

Zazpi ipotxak eta otsoa. Zubieta LH1-2

Asteazkena 15, 19:00etan
 Frozen. DBH1-2

Osteguna 16, 18:00etan
 Bihotz gazteen iraultza. LH6
 Ikusi den antzezlan onena. LH6

Osteguna 16, 21:00etan
 Vygotsky caffe. Gazteak

Ostirala 17, 20:00etan
 Itxaroten. Helduen taldea.

Larunbata 18, 20:00etan
 Dantza garaikidea. Dantzaz Blai eguna.

Igandea 19, 12:30etan
 Euskal Dantza. Dantzaz Blai eguna.

Igandea 19, 19:00etan
 Euskal Dantza sorkuntza. Dantzaz Blai eguna.

Erakusketa

ANTONIO MERCERO ARETOA

Ekainak 10a arte

Brancussi akademiako ikasleen lanak ikusgai izango dira.

Aste Berdea

OKENDO PLAZA

Larunbata 11, 09:30etik 13:30era

Asiako liztorrei buruzko informazio gunea. Erleak ikusteko aukera ere izango da.

Liburu aurkezpena

MENDI KAFE ROCK

Larunbata 11, 19:00etan

Teo Serranok 'El Rock and roll de los prodigios' liburua aurkeztuko du zuzeneko kontzertu batekin. Ostean Javier Sunek joko du.

Gure Esku Dago

OKENDO PLAZA

Igandea 12

10:00etan, plaza dantza.

11:00etan, Ipar martxa sinkroa.

12:00etan, zumba giro.

13:00etan, ekitaldi nagusia.

13:15etan, GED elkarketa.

Ostean, GED pintxo-potea Xumelak giro-tua eta lokalaren aurkezpena.

Herritarren txokoa

Odol-ateratzea

Hilabete honetan ekainaren 20an, astelehena, eman ahal izango da odola Osasun Zentroan, arratsaldeko 17:30etik 20:30era.


Anima zaitetze, odola ordezkazina da eta odol falta dago!

Italiara bidai

Uda honetan Roma, Florentzia... aldeira modu independentean bidaiatzeko 40 eta 55 urte arteko pertsonak osatutako taldea sortu nahiko nuke. Anima zaitetz! Harremanetarako, 667 075 139, Asun. WhatsAppera ere erantzuten du.

Sarean

Mikel Laboari buruzko webgunea



Euskal Herriko Unibertsitateko Mikel Laboa Katedrak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak Mikel Laboa abeslariaren lanari erreparoa egiten dion webgunea jarri dute martxan.

Informazio iturri nagusia Marisol Bastida izan da, Laboaren alarguna. Jose Luis Zumetaren irudiak erabili dituzte eta Elkar eta Eresbilen laguntza izan dute dokumentazioa eta diskografia antolatzerakoan.

www.mikellaboa.eus atarian abeslariaren biografia, diskografia eta kantei buruzko informazioa dago. Kantei dagokionez gainera, musika eta abestien testuak, zein jatorrizko testuak agertzen dira, baita abestien moldaketak ere. Honetaz gain, hemeroteca atala ere badu webgunea. Musikariari buruzko iritzi, kritika eta beste zenbait dokumentu aurki daitezke bertan.

Marisol Bastidak "ikerketa serio eta zorrotzak egin nahi dituenarentzat, tresna baliagarria izan dadila", adierazi zuen webgunearen aurkezpenean.

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:
 Geltoki kalea, 4 943 37 14 48 txintxarri@txintxarri.eus

Euskararekin esperimentatzen

Egitasmo desberdinak mintzagai Jalgin

'Euskara, ezagutzatik erabilerara' mikro irekiaz gozatu zuten herritarrek asteazkenean, Jalgin. Hizkuntza oinarri hartuta garatutako hainbat esperientzia ezagutu zituzten.

TXINTXARRI

Lutxo Egia, Aitziber Gurutzeaga, Maddi del Campo eta Mari Karmen Ormazabal mikrofono baten bueltan bildu ziren asteazkenean, Jalgin; euskara oinarritzat hartuta urteotan garatu dituzten zenbait esperientziari buruz jardun ziren, giro ederrean.

30 egunez euskara hutsean

Lutxo Egia bilbotarrak hilabete pasa zuen hiri horretan, euskara hutsean komunikatzen. "Euskararen aktibazioaz egin nahi nuen gogoeta, deskubritu subjektu euskaldun zerk bihurtzen gaituen", azaldu zuen Egia.

Bere egitasmoak "hasieran kutsu artistikoa" zeukala ere zehaztu zuen.

Indarra gal ez dadin

Ainhoa Gurutzeaga donostiarra Egia auzoan plazaratutako proiektua ekarri zuen Jalgira. Urtarrilaren 8tik martxoaren 4ra bitarte, astez aste lekukoa bate-tik bestera pasaz, euskara ahoz aho ibili zuten.

"Korrika eta antzeko jaialdiek indar handia sortzen dute, baina egunak pasa ahala galtzen joaten da pixkanaka; guk mantendu egin nahi genuen hori", aipatu zuen. 'Egian euskaraz bizi nahi dugulako' du izena ekimenak.



Añorgan, koadrilaka

Añorgako hainbat koadrilek Egia proiektua euren egin eta antzeko proiektu bat jarri zuten martxan auzoan. "Euskararen aktibazioa sustatzeko baldintza egokiak ematen zirela ikusi genuen, eta lanean hasi", adierazi zuen Maddi del Campo añorgatarrak.

40 ordu eta 40 egun

Urriaren iritsiko da Euskararen 9. Maratoia herrira. Solasaldia gidatzeaz gain, Mari Karmen Ormazabalek egitasmo horren hainbat xehetasun izan zituen gogoan. Besteak beste, aipatu zuen zertan izango den aurten-go erronka: 40 orduz euskaraz bai, baina baita 40 egun ere.



HABE 3 edo EGAKo bigarren deialdia prestatu nahi duzu?

Zatoz LASARTE-ORIAKO UDAL EUSKALTEGIRA!

MATRIKULALDIA:

2016ko ekainaren 1etik 20ra

BULEGO ORDUTEGIA:

09.00-19.00

IKASTARO TRINKOA:

Uztailaren 1etik 29ra

80 ordu, 9:00etatik 13:00etara

Prezioa: 130,50 euro



EUSKARA
EUSKALTEGIA

Tel: 943 36 16 21 - euskaltegia@lasarte-oria.eus - www.lasarte-oria.eus (administrazioa>udala zure zerbitzura)

2 ETA 3 GELAKO ETXEBIZITZAK 4 GELAKO ATIKOAK, GARAJEAK ETA LOKALAK

SALGAI!



ZUBIEDER
CONSTRUCCIONES

☎ 609 000 140

PROMOCIONES LANONDO, S.L.
LANONDO